

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 264/2018 Erabakia, maiatzaren 29koa. Onestea ikus-entzunezkoen proiektuak landu eta produzitzeko eta gidoiak idazteko 2018 ekitaldirako laguntzen deialdia

Arabako Foru Aldundiak, Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa sustatzeko duen zereginaren barruan, erabaki du somenezko kultura industriei laguntzea, bereziki ikus-entzunezkoen sorkuntza sektorearen ekintzailetzari eta sendotzeari.

Horiek horrela, erabaki honen bidez aginduzko deialdia egiten da ikus-entzunezkoen proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko, betiere Diputatuen Kontseiluak martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bitartez onartutako oinarri orokorren esparruan (ALHAO, 36. zk., 2012ko martxoaren 26koa), kontuan harturik ondoren foru dekretu hori Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretuak aldatu zuela (ALHAO, 23. zk., 2014ko otsailaren 26koa), hartara ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearren publizitatearen, norgehiagokaren eta objektibitatearen eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKIA

Lehen. Ikus-entzunezkoen proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzen deialdia onartzea 2018ko ekitaldiari begira; deialdia erabaki honi erantsi zaio.

Bigarren. Deialdia arautzeko kontuan hartu behar dira dirulaguntzak lehiaren araubidean emateko oinarri arautzaile orokorrak, martxoaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako (ALHAO, 36. zk., 2012ko martxoaren 26koa), eta geroago egin zitzaizen aldaketa (otsailaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren 6/2014 Foru Dekretua, ALHAOn argitaratua, 23. zenbakian, 2014ko otsailaren 26koan), bai eta erabaki honen eranskinean xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiak 2018ko ekitaldirako indarrean duen aurrekontu antolamenduaren "10601.0702.7700007 sorkuntzazko kultura industriak" deritzon aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira; partida horretan 180.000,00 euro daude 18.1.18. 105. 2541/000 zainpeketaren erreferentziarekin.

Laugarrena. Ebazpen honen bidez administrazio bidea amaituko da. Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluen arabera, berraztertze aukerako errekurtoa aurkeztu ahalko da Diputatuaren Kontseiluan hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epea edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, jurisdikzio eskudunean.

Bosgarrena. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatuari esku-mena ematen zaio deialdi hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro hartzeko.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA

IKUS-ENTZUNEZKOEN PROIEKTUAK GARATZEKO ETA EKOIZTEKO ETA GIDOIAK IDAZTEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA 2018KO EKITALDIARI BEGIRA

I. kapituluak

Arau orokorrak

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da laguntzak norgehiagoka eta itzuli beharrik gabe ematea, betiere 2018ko ekitaldian ikus-entzunezkoen proiektuak garatzen eta idazten eta gidoiak idazten laguntzeko.

2. artikulua. Laguntza modalitateak

Laguntza modalitateak honakoak dira:

2.1. Zine eta telebista proiektuak garatzeko laguntzak, deialdi honen III. kapituluak ezarritakoari jarraikiz.

2.2. Ikus-entzunezkoen lanak ekoizteko honako modalitate hauetarako laguntzak, betiere deialdiaren III. kapituluak ezarritakoari jarraikiz:

a) Metraje luzeko filmak eta sorkuntza dokumentalak ekoizteko laguntzak. (I. sekzioa).

b) Metraje laburreko filmak ekoizteko laguntzak (II. sekzioa).

2.3. Gidoiak idazteko laguntzak, betiere deialdi honen IV. kapituluak ezarritakoari jarraikiz.

3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiak 2018ko ekitaldirako indarrean duen aurrekontu antolamenduaren "10601.0702.7700007 sorkuntzazko kultura industriak" deritzon aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira; partida horretako gehieneko kopuru osoa 180.000,00 eurokoa da.

Kopuru osoa aurreko artikuluko modalitateen artean banatuko da, honela:

— Zine eta telebista proiektuak garatzeko laguntzak: 40.000,00 euro.

— Metraje luzeko filmak eta sorkuntzazko dokumentalak ekoizteko laguntzak: 80.000,00 euro.

— Metraje laburreko filmak ekoizteko laguntzak: 40.000,00 euro.

— Gidoiak idazteko laguntzak: 20.000,00 euro.

Sailaren diputatu titularrari ahalmenak ematen zaizkio, Balioespen Batzordeak hala proposatuta, funts horiek beharrezko ebazpenaren bidez birbana ditzan, edozein kasutan ere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

4. artikulua. Onuradunak

4.1. Onuradunek Arabako Lurralde Historikoan izan beharko dute sozietate eta zerga egoitza.

4.2. Zine eta telebista proiektuak garatzeko eta ikus-entzunezko lanak ekoizteko laguntzei dagokienez (2. artikulua 2.1., 2.2.a. eta 2.2.b. modalitateak), onuradunak izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak, baldin eta haien jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea laguntza eskatu duten jarduerarako bada.

Hauek joko dira pertsona pribatu independentetzat: ikus-entzunezkoen komunikazio/za-balkunde zerbitzuak ematen dituen entitate baten edo telebista kanal pribatu baten titular baten eragin menderatzailearen agindupean ez dauden pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta, aldi berean, beraiek eragin menderatzaile hori inongo kasutan erabiltzen ez badute: ez jabetza arrazoiengatik, ez finantza partaidetzagatik, ez eta, aldez edo moldez, kasuan kasuko administrazio edo kudeaketa organoen erabakimena baldintzatzeko ahala edukitzeagatik ere. Ondorio horietarako, horien parekotzat joko dira ekonomia intereseko taldeak, beren helburu soziala, Merkataritza Erregistroko inskripzioaren arabera, ikus-entzunezkoen ekoizpen jarduerak egitea delarik.

4.3. Gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (2. artikulua 2.3. modalitatea) onuradunak izan ahalko dira gidoiak idazteko jarduera profesionala (JEZren epigrafean) betetzen duten pertsona fisikoak, baldin eta haien izenean gutxienez metraje luzeko gidoia erregistraturik badute Jabetza Intelektualaren Erregistroan.

4.4. Deialdi honetara gehienez ere bi proiektu aurkeztu ahalko dira pertsona eta modalitate bakoitzeko; hala ere, proiektu bakarra baizik ez da diruz lagunduko pertsona eta modalitate bakoitzeko.

4.5. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi asmorik gabeko entitateak eta elkarte edo lanbide jarduerak burutzen dituztenak ere (elkartek, lanbide elkargoak eta abar).

4.6. Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hura frogatzetik salbuetsita egon ezean, bai emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza ordaintzeko unearen aurretik.

4.7. Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren barruan gizon eta emakumeen presentzia eta parte hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarteek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

4.8. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, bere 12. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

5.1. Deialdia indarrean jartzen delarik zabalduko da eskabideak aurkezteko epea eta ekainaren 22an, 14:00etan, bukatuko da.

5.2. Eskaerak deialdi honen I. eranskinean eskuragarri dagoen eredura egokituko dira.

5.3. Eskaerok Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Lurraldearen Plazako 5. zenbakian, 01001 Vitoria-Gasteiz) eta Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzaren Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari zuzenduko zaizkio; hori, hala ere, ez da oztopo izango urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 16.4. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko.

5.4. Eskaerarekin batera deialdi honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko da, laguntza eskatzen den modalitatea kontuan hartuz.

5.5. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzako laguntza eskaeraren eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

5.6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak esan nahiko du eskatzaileak organo bideratzaileari baimena ematen diola 4. artikuluko inguruabarrak zuzenean egiaztatzeko, bereziki Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dena egunean izateari buruzkoak.

6. artikulua. Jardunbidea bideratzeko eskumena duten organoak

6.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

6.2. Balioespen Batzordea eratuko; batzorde hori honela osatuko da:

- Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren zuzendaria edo bera ordezkatzeko duen pertsona.
- Bokalak: Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzak izendatutako hiru aditu profesional:

1. bokal titularra: Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao. Arabako Foru Aldundiko Kultura Ekintzaren zerbitziburua.

2. bokal titularra: Oskar Bilbao-Goioaga Sagardui Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuko teknikaria.

3. bokal titularra: Gloria Peña Rodríguez, ikus-entzunezkoen ekoizpenen produktore exekutiboa eta zuzendaria.

— Idazkaritza: Ekonomia Garapenaren Zerbitzuko lantalde teknikoko pertsona bat, hizpidea bai baina hautespiderik izango ez duena.

Balioespen Batzordeetarako izendatutako aditu profesionalek erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ez daudela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitako abstentzio kausetako batean ere, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa deialdian finkatutako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko baino ez dutela erabiliko, eta, ebazpen proposamena egin ondoren, dossierretako dokumentazio guztia prozedura izapidetzen duen organoari itzuliko diotela.

Balioespen Batzordea eratzeko orduan, Gizon eta Emakumeen berdintasunari buruzko 4/2005 Legeak bere 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

7. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

7.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordeak proposatuta, behar diren ebazpenak emango ditu; ebazpen horiek banaka jakinaraziko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta.

7.2. Jakinarazitako ebazpen horrek amaiera emango dio bide administratiboari, baina aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Foru Gobernuaren Kontseiluari, erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenarenak, bere 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

a) Emandako dirulaguntza onartu behar du. Laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, hamabost eguneko epean berariaz eta idatziz laguntzari uko eginen ez badiote, onartu egin dutela ulertuko du Administrazioak.

b) Laguntza zertarako eman zaien, horretarako baliatzea.

c) Dirulaguntza jasotzen duen proiektua deialdira aurkeztu den moduan gauzatzea. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako proiektuan funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari, berariaz eta aldez aurretik. Berariaz baimentzen delarik baino ezingo da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

d) Arabako Foru Aldundiaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu hartzailetzari dagozkion finantza kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende ere.

e) Deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzeko bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari jakinaraztea, Estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emana izanik ere.

f) Egokitzen jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateei, eskaera behar bezala baloratu ahal izateko.

g) Dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsona eta entitateek Arabako Foru Aldundiaren laguntza izan dutela azaldu beharko dute, argi eta garbi, publizitaterako baliatzen dituzten bitarteko guztietan. Era berean, Foru Aldundiaren finantzazioaren berri eman beharko dute, baita Arabako Foru Aldundiaren logotipoa jarri ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten hedabideetan.

h) Arabako Foru Aldundiari argitaratzen dituzten promozio material guztien ale bana ematea.

i) Deialdi honen laguntza modalitate bakoitzerako ezarritakoak, bai eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura laguntzak eta dirulaguntzak jasotzeagatik ezarrita dauden gainerako betebeharrak eta eginkizunak ere.

j) Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluan ezarritakoak.

9. artikulua. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Modalitate bakoitzean ezarritako mugak gorabehera, dirulaguntzen zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago izan. Gainfinantziakoa gertatuz gero, eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekotik murriztu egingo da dagokion kopurua, gehieneko mugara iritsi arte.

10. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez eta ondoren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Dekretuak aurreko dekretuari egiten dion aldaketaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arau berriaren aurka edo aplikagarriak izan daitezkeen bestelako xedapenen aurka.

II. kapitula

Proiektuak garatzeko laguntzak

11. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduketak eta gastuak

11.1. Honako zinema eta telebista proiektuen garapena lagundu ahalko da diruz:

a) Zinemarako lanak:

— Fikzioa, animazioa eta sorkuntza dokumentalak: 60 minututik beherakoa ez den iraupena.

b) Telebistarako lanak:

— Fikzioa, animazioa eta sorkuntza dokumentalak (banako proiektuak): 45 minututik beherrakoa ez den iraupena.

— Fikzioa eta sorkuntza dokumentalak (telesailak): kapitulu bakoitza 22 minututik 50era bitartekoa.

— Animazioa (telesailak): kapitulu bakoitza minutu batetik 25era bitartekoa.

11.2. Ikus-entzunezko ekoizpenaren prestakuntza eta diseinu lanak joko dira "proiektuen garapentzat", kasu guztietan, produkzio fasearen beraren aurretik egin beharrekoak.

11.3. Diruz lagun daitezkeen gastuak honakoak dira:

a) Lanaren egilearen eskubideak eskuratzea.

b) Gidoiaren garapena: berridazketa edo berregokitzapena, kanpo aholkularitza, itzulpena. Gutxienez jasotako dirulaguntzaren ehuneko 20 erabili beharko da gidoia garatzeko.

c) Promozio materiala diseinatzea eta prestatzea: inprimatutako materiala, teaser-a, trailerra, saio pilotua, story board-a, webgunea.

d) Marketin eta banaketa plana prestatzea:

e) koprodukziorako merkatu eta foroetara bertaratzea: joan-etorri, ostatu eta egiaztapenertarako gastuak.

f) Castinga eta kokalekuak bilatzea.

g) Ikerketa dokumentala, grafikoa (animazio proiektuetan) eta artxiboen bilaketa.

h) Garapena kudeatzeko pertsonalaren gastuak (gehienez ere aurrekontuaren ehuneko 15).

i) Aurkeztutako proiekturako aholkularitza juridiko eta fiskala: koprodukzio kontratuei buruzko aholkularitza eta prestaketa, aurrez aurre, lanaren gaineko eskubideak, proiektuan parte hartzen duten profesionalen kontratuak.

j) Gastu orokorrak (aurrekontuaren ehuneko 5 gehienez ere).

11.4. Proiektua garatzeko, onuradunak gutxienez aurrekontuaren ehuneko 50aren baliokidea den kopurua erabili beharko du, betiere bizilekua edo egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten pertsona fisiko nahiz juridikoek egindako lanetan. Koprodukzioen kasuan, onuradunak ikus-entzunezkoen ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio ehuneko 50eko portzentaje hori.

12. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Modalitate honetako dirulaguntzen eskaerari honako dokumentazioa erantsiko zaio:

12.1. Eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

12.1.1. Pertsona fisikoa izanez gero:

a) NANaren fotokopia.

b) JEZn alta hartuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Enpresa Erregistroan (I. sekzioa, ekoizpena) inskribaturik dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

12.1.2. Pertsona juridikoa izanez gero:

a) NANaren fotokopia.

b) Eratze eskriturak eta estatutuak, baita dagokien erregistro publikoetan izena emanda daudela egiaztatzen duten agiriak ere, eta gerora egindako aldakuntzak.

c) JEZn alta hartuta dagoela egiztatzen duen ziurtagiria.

d) Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Enpresa Erregistroan (I. sekzioa, ekoizpena) inskribaturik dagoela egiztatzen duen ziurtagiria.

e) Legezko ordezkariaren nortasun agiriaren fotokopia, eta dena delako organoak emandako ahalordetza eskritura edo ziurtagiri bidez betetzen dituen ordezkaritza ahalordetzaren egiztapena.

12.2. Proiektuari buruzko dokumentazioa.

a) Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen adierazpena, II. eranskinaren arabera.

b) Proiektua azaltzen duen memoria.

c) Gidoiaren sinopsia.

d) Gidoia edo, halakorik ezean, gidoiaren tratamendua (gehienez 30 orrialde). Telesailen kasuan, kapitulu baten gidoi osoa eta gainerako gidoiaren sinopsia.

e) Jatorrizko gidoiaren edo alde aurreko obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen egiztapena, edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiztatzen duen agiria.

f) Proiektuaren garapenaren aurrekontu xehatu eta partidaz partida banakatua, aurreikusitako gastu guztiak jasotzen dituen, baita diru sarreraren aurreikuspena ere, III. eranskinean ageri den ereduari jarraikiz.

g) Produkzioaren aurrekontu orientagarri orokorra eta finantzazio plana.

h) Zuzendariaren eta gidoilariaren ibilbide artistiko profesionala.

i) Zuzendariak ez badu lehendik film luzerik egin, baina bai film laburrik, aurretik egindako film labur edo telesail horien artetik hautatako lanen kopiak.

j) Gidoilariarekin edota zuzendariarekin izenpetutako akordioa, garapen zereginak betetzeko.

k) Proiektuaren garapenean esku hartuko duten arduradun artistikoek izenpetu beharreko erantzukizunpeko adierazpenak edota interes gutunak.

l) Produkzio etxearen ibilbidea eta hurrengo bi urteetako ekoizpen aurreikuspenak, IV. eranskinean ageri den ereduari jarraikiz.

m) Zuzendaritza, produkzio exekutibo, gidoigintza, argazki zuzendaritza edo musika konposizioaren lanetan emakumeen presentzia egiztatzen duen dokumentazioa, hala izanez gero.

13. artikulua. Balioespen irizpideak

13.1. Jasotako eskabideak aztertuko ditu balioespen batzordeak, eta zehaztutako alderdietako bakoitza ebaluatuko, ondoren adierazten den baremoa aintzat harturik:

a) Aurrekontuaren eta finantzazio planaren egokitasuna, kontuan harturik finantziario pribatuaren maila eta enpresaren arrisku ekonomikoa; koproduttoreak, produktore elkartuak eta banatzaileak bilatzeko plana. (20 puntu).

Puntuak modu proportzionalean esleituko dira, eta finantzazio ehunekorik handiena egiztatzen duen eskatzaileari —ehuneko 60ko gehieneko finantzazio mugarekin— goreneko puntuazioa emango zaio.

b) Inplikaturako enpresa eta giza baliabideak: produkzio etxearen, zuzendariaren eta gidoilariaren curriculumak. Aldez aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, eta —egindako proiektuen kopurua baino gehiago— ikusleengan izandako eragina eta lortutako balorazioa, baita komunikabide espezializatueta agertutako kritikak ere. (15 puntu).

c) Gidoiaren kalitatea: bereziki, originaltasuna eta kalitate literarioa baloratuko dira, baita zinemara eramatearen bideragarritasuna ere. (30 puntu).

d) Proiektuaren interesa: bereziki baloratuko dira Arabako Lurralde Historikoko nahiz bertako herritarren errealitate kultural, sozial, linguistiko edo beste edozein arlotakoarekin lotzeko eskaintzen dituen aukerak. (15 puntu).

e) Jatorrizko bertsioa euskaraz. (10 puntu). Euskarazko jatorrizko bertsiotzat hartu eta 10 puntuak eskuratu ahal izateko, tratamendua edo gidoia euskaraz idatzita egongo dira. Aukera gisa gaztelaniara egindako itzulpena jaso ahalko da, balioespen batzordeko kideen balioespen lana errazteko.

f) Emakumeen parte hartzea, zuzendaritza, produkzio exekutibo, gidoigintza, argazki zuzendaritza edo musika konposizioaren lanetan. (10 puntu).

Zuzendaria emakumezkoa bada. (3 puntu).

Produktore exekutiboa emakumezkoa bada. (3 puntu).

Gidoiaren egilea emakumezkoa bada. (2 puntu).

Argazki zuzendaria emakumezkoa bada. (puntu bat).

Musika konposatzailea emakumezkoa bada. (puntu bat).

13.2. Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, adierazitako irizpide eta puntuazioen arabera.

14. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

14.1. Dirulaguntza diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 50ekoa izango da; gehieneko muga 10.000,00 eurokoa izango da.

14.2. Proiektuaren garapenera zuzendutako aurrekontua ez da izango ekoizpen aurrekontu osoaren ehuneko 20tik gorakoa.

14.3. Koprodukzioei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren laguntza ez da inoiz izango produkzio etxe eskatzailearen ehuneko 50etik gorakoa eta gutxienez emaitzazko produkzioaren ehuneko 25 izan beharko du.

14.4. Bestelako laguntza publikorik egonez gero, guztien batuketa ezingo da izan proiektuaren garapen kostuaren ehuneko 50etik gorakoa.

15. artikulua. Laguntzaren ordainketa eta justifikazioa

15.1. Proiektuak garatzeko emandako laguntzak aurrerakin gisa ordainduko dira, alegia, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, behin emakidaren ebazpena onartu ondoren.

15.2. Emandako laguntza justifikatzeko, onuradunak Ekonomia Garapenaren Zerbitzuan honako dokumentazioa aurkeztu beharko du 2019ko urriaren 31n amaituko den epearen barruan:

a) Aurrera eramandako jardueren eta lortutako emaitzei buruzko txostena.

b) Behin betiko aurrekontua.

c) Sarreraren eta garapen gastuen zerrenda sailkatua, BEZik gabe, hartzekoduna eta agiria identifikaturik, eta horren zenbatekoa, jaulkipen data eta, egin bada, ordainketaren data.

d) Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatua —jatorrizko fakturak edo kopia erkatuak—, eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak, gastu orokorrak izan ezik.

e) Gidoi osoa, zuzenduta.

f) Gidoigilearekin edo gidoigileekin eskubideak lagatzeko sinatutako kontratua —gutxienez bi urterako—, edo garatu nahi den obraren gaineko eskubideak erosteko aukera ematen duen kontratua —gutxienez bi urterako—.

g) Lan planaren banakatze berria, eta ekoizpenaren behin-behineko aurrekontu berria.

h) Filmatuko den lekuei buruzko dokumentazioa.

i) Behin behineko casting proposamenak.

j) Finantzazio plan xehatua.

k) Banaketa plan xehatua.

15.3. Gainera, onuradunak egiaztatu beharko du 11.3.b), 11.4., eta 14.3. artikuluetan ezarritako baldintzak bete dituela.

15.4. Laguntzaren justifikazioa iristen ez bada laguntza emateko kontuan hartutako aurrekontuaren ehuneko 75era, hori proportzionalki murriztuko da; gauzak horrela, ehuneko 75 hori dirulaguntza kalkulatzeko oinarri berria izango da, 14.1. artikulua aplikatzeko oztopo izan gabe.

III. kapitula

Ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzak

16. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduketak eta gastuak

16.1. Ekoizpen modalitate hauetarako emango dira laguntzak:

a) Zinema film luzeak —fikzioa, animazioa eta sorkuntza dokumentalak— ekoiztea, kapitulu honen I. sekzioan adierazten denaren ildotik.

b) Film laburrak ekoiztea, kapitulu honen II. sekzioan adierazten denaren ildotik.

16.2. Ezingo dira deialdi honetara aurkeztu 2018ko urtarrilaren 1aren aurretik estreinatzen diren obrak.

16.3. Ekoizpen kostuak diruz lagun daitezkeen gastuak, betiere abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, haren bidez film baten kostuaren eta produktorearen inbertsioaren onarpena arautzen baita.

17. artikulua. Eskaerari erantsita eskatzen den dokumentazioa

Ekoizpen modalitateetan dirulaguntza jasotzeko eskaerari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

17.1. Eskatzaileari dagokion dokumentazioa:

17.1.1. Pertsona fisikoa izanez gero:

a) NANaren fotokopia.

b) JEZn alta hartuta dagoela egiztatzen duen ziurtagiria.

c) Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Enpresen Erregistroan (I. sekzioa, ekoizpena) inskribaturik dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

17.1.2. Pertsona juridikoa izanez gero:

a) IFKaren fotokopia.

b) Eratze eskriturak eta estatutuak, baita dagokien erregistro publikoetan izena emanda daudela egiaztatzen duten agiriak ere, eta gerora egindako aldakuntzak.

c) JEZn alta hartuta dagoela egiztatzen duen ziurtagiria.

d) Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Enpresa Erregistroan (I. sekzioa, ekoizpena) inskribaturik dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Legezko ordezkariaren nortasun agiriaren fotokopia, eta dena delako organoak emandako ahalordetza eskritura edo ziurtagiri bidez betetzen dituen ordezkaritza ahalordetzaren egiaztapena.

17.2. Proiektuari buruzko dokumentazioa.

a) Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen adierazpena, II. eranskinaren arabera.

b) Proiektua azaltzen duen memoria.

c) Gidoiaren sinopsia.

d) Gidoia.

e) Jatorrizko gidoiaren edo aldez aurreko obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen egiaztapena, edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiaztatzen duen agiria.

f) Aurrekontu xehatua, partidaz partida.

g) Ekoizpen plana.

h) Finantzazio plana, V. eranskineko ereduaren arabera eta bertan eskatzen den egiaztapen dokumentazioa erantsiz.

i) Fitxa teknikoa eta artistikoa.

j) Zuzendariaren, gidoigilearen eta produktorearen ibilbide profesionala.

k) Proiekturako proposatutako zuzendariaren idatzizko onespina.

l) Aurreikusitako egutegia eta filmatze plana —denbora eta kokalekuak adierazten direlarik—.

m) Merkaturatze eta banaketa plan xehea.

n) Koprodukzio kontratuaren edo kontratuen kopia erkatuak:

— Nazioarteko koprodukzioak: Zinematografiaren eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuak koprodukzio proiektua onesten dueneko ebazpena, eta koproduttore guztiek sinatutako kontratuaren azken bertsioa.

— Koprodukzio nazionalak: koproduttore guztiek fede emaile publikoaren aurrean sinatutako kontratuaren azken bertsioa.

o) Produkzio etxearen ibilbidea eta hurrengo bi urteetako ekoizpen aurreikuspenak, IV. eranskinean ageri den ereduari jarraikiz.

p) Zuzendaritza, produkzio exekutibo, gidoigintza, argazki zuzendaritza edo musika konposizioaren lanetan emakumeen presentzia egiaztatzen duen dokumentazioa, hala izanez gero.

q) Eskatzailearen kaudimen ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, 20.2.b artikulua zehazten duena.

18. artikulua

Ikus-entzunezkoen ekoizpenerako bestelako laguntza publikorik egonez gero, guztien batuketara ezingo da izan diruz lagun daitezkeen kostuen ehuneko 50etik gorakoa, ikus-entzunezko lan zailen kasuan izan ezik, azken horiek ehuneko 100ean lagundu ahalko baitira diruz. Ikus-entzunezko lan zailtzat hartuko dira jatorrizko bertsioa euskaraz dutenak eta aurrekontu baxuko metraje labur eta luzeko fikzio filmak (800.000,00 eurotik beherakoak), aldi berean zuzendariaren lehen edo bigarren lana badira.

*I. sekzioa**Zinema film luzeak eta sorkuntza dokumentalak ekoizteko laguntzak***19. artikulua. Laguntza jaso lezaketen jarduerak**

19.1. Laguntza modalitate honetan, zinema film luzeak —fikzioa, sorkuntza dokumentalak eta animazioa— egiteko laguntzak emango dira, edozein hizkuntzatan egiten direlarik ere.

19.2. Honelakoak joko dira fikzio edo animazio film luzetzat: ikus-entzunezko obrak, gutxienez hirurogei minutuko iraupena dutenak, zinema aretoetan merkataritza ustiapena egiteko asmoz eginak.

19.3. Honelakoak joko dira sorkuntza dokumentaltzat: gaia errealitatetik hartua duten proiektuak, aldi berean lan originalak direnak —gai jakin baten inguruko ikerketa edo analisia—, gutxienez ordubete komertzialeko iraupena dutenak, zineman nahiz telebistan emateko eginak.

19.4. Onuradunak gutxienez ikus-entzunezkoak ekoizteko aurrekontuaren ehuneko 32aren baliokidea izango den kopurua erabili beharko du Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo egoitza duten pertsona fisikoek edo juridikoek aurrera eramango dituzten lanak egiteko. Koprodukzioa izanez gero, ehuneko 32ko kopuru hori aplikatuko zaio onuradunak ikus-entzunezkoen ekoizpenean duen partaidetza kuotari.

20. artikulua. Balioespen irizpideak

20.1. Modalitate honetako eskaerak bi fasetan baloratuko dira, jarraian zehaztutako irizpideei eta baremoei jarraikiz.

20.2. Lehenengo fasea: ekoizpen proiektuaren balioespena. (65 puntu).

a) Proiektuaren finantzazioa. (25 puntu).

Errealizazio aurrekontu osoaren gaineko finantziazio baliabideen ehunekoaren arabera emango dira, behar bezala egiaztatzen direlarik laguntza edo dirulaguntzak jasotzeko eskubideen egiaztagirien bitartez edo hirugarrenekin dagoneko sinatutako ustiapen kontratuen bitartez (eskubideak lagatzeko kontratuak nahiz produkzio eta banaketa kontratuak), edo, baliabide propioen kasuan, banku baten nahiz elkarren bermerako sozietate baten abalaren bitartez, eta kapitalizazioak, film luzearen aurrekontuaren ehuneko 15era arte.

Koprodukzio kontratuen kasuan, koproduttore diren pertsona edo enpresek laguntzak jasotzeko dituzten eskubideen egiaztagiriak, ustiapen kontratuak edo banku egiaztagiriak erantsi beharko dira, halakorik izanez gero. Puntuak modu proportzionalen esleituak dira, eta finantzazio ehunekorik handiena egiaztatzen duen eskatzaileari —ehuneko 60ko gehieneko finantzazio mugarekin— gorenko puntuazioa emango zaio.

b) Eskatzailearen kaudimen ekonomikoa. (7 puntu).

Egin eta estreinatutako film luzeen kopurua, leihatilako emaitzak, zein zinemalditarako aukeratuak izan diren eta zein sari lortu dituzten, enpresaren antzintasuna, finantza erakundeentxostena eta azken bi urteetako emaitzen kontua eta balantzeak kontuan harturik emango dira.

c) Arabako Lurralde Historikoan filmatzea. (13 puntu).

Arabako Lurralde Historikoan filmatzen egiten diren egunak kontuan hartuta emango dira, betiere aurreikusitako erroldajearen iraupen osoari dagokionez.

d) Enpresa eta giza baliabide inplikatuak. (10 puntu).

Arabako Lurralde Historikoan egoitza duten pertsonen edota enpresek emandako baliabide sorkuntzazko, artistiko eta teknikoaren kontratazioan egindako inbertsioaren kopurua kontuan hartuz emango dira, betiere proiektua aurrera eramateko aurrekontu osoari dagokionez. Portzentajea ikus-entzunezko produkzioaren aurrekontuaren ehuneko 50ekoa edo handik gorakoa izanez gero, gorenko puntuazioa emango zaio.

e) Emakumeen parte hartzea, zuzendaritza, produkzio exekutibo, gidoigintza, argazki zuzendaritza edo musika konposizioaren lanetan. (10 puntu).

Zuzendaria emakumezkoa bada. (3 puntu).

Produktore exekutiboa emakumezkoa bada. (3 puntu).

Gidoiaren egilea emakumezkoa bada. (2 puntu).

Argazki zuzendaria emakumezkoa bada. (puntu bat).

Musika konposatzailea emakumezkoa bada. (puntu bat).

Lehen fase honen balioespenean gutxienez 33 puntura iristen ez diren eskaerak deialditik baztertuko dira eta ez dira baloratuak izango balio artistiko eta kulturalaren atalean.

20.3. Bigarren fasea: proiektuaren balioespen artistiko eta kulturala. (35 puntu).

a) Gidoiaren kalitatea eta bideragarritasuna. (20 puntu).

b) Balio artistikoko ekimena izatea edo Arabako Lurralde Historikoko nahiz bertako herritarren errealitate kultural, sozial, linguistiko edo beste edozein arlotakoarekin loturik egotea: (10 puntu).

c) Jatorrizko bertsioa euskaraz. (5 puntu). Euskarazko jatorrizko bertsiotzat jo ahal izateko, gidoia euskaraz aurkeztu beharko da. Aukera gisa gaztelaniara egindako itzulpena jaso ahalko da, balioespen batzordeko kideen balioespen lana errazteko.

Bigarren fase honen balioespenean gutxienez 17 puntura iristen ez diren eskaerak deialditik baztertuko dira.

21. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

21.1. Dirulaguntza ekoizpen aurrekontuaren ehuneko 50 izango da eta 20.000,00 euroko gehieneko muga izango du.

21.2. Produktore indibidualik egonez gero, laguntzak ez du produktore horren inbertsioa gaitutuko.

Onorio horietarako, baliabide propioak, itzuli beharreko besteren baliabideak nahiz film luzea ustiatzeko eskubideen lagapenaren bitartez lortutako baliabideak erabiliz jarritako diru kopurua joko da produktorearen inbertsiotzat. Inola ere ezingo dira zenbatu produktorearen inbertsio gisa hark jasotako dirulaguntzak, ezta edozein administrazio, entitatek edo telebista zerbitzu publikoa zuzenean nahiz zeharka kudeatzen duen enpresa publiko edo sozietatek egindako edonolako ekarpenak ere, itzuli beharrekoak ez badira.

21.3. Koprodukzioen kasuan, Arabako Foru Aldundiaren laguntza ez da inoiz izango produkzio etxe eskatzailearen benetako partaidetzaren ehuneko 50etik gorakoa eta ez du gaitutuko produktore eskatzailearen edo deialdi honen arabera onuradunak izan daitezkeen koproduktore guztien inbertsioaren ehuneko 50.

Produktore eskatzaileak, era berean, emaitzazko produkzioaren ehuneko 25 izango beharko du gutxienez edo deialdi honen arabera onuradunak izan daitezkeen koproduktoreen multzoaren kasuan bakoitzaren partaidetzaren batuketa.

22. artikulua. Burutzapen epeak

22.1. Gehienez sei hilabeteko epea izango du pertsona edo entitate onuradunak film luzea filmatzen hasteko, laguntza eman zaiola jakinarazten zaiolarik (jakinarazi aurretik hasi ez bada): epe hori bakar-bakarrik luzatu ahalko da behar bezala justifikatuz gero. Halaber, hiru urteko epea izango du produkzioa amaitzeko, lehen kopia estandarra barne.

22.2. Filmatzen hasi baino gutxienez 10 egun lehenago jakinarazi beharko dio pertsona edo entitate onuradunak data hori Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari, eta halaber, bukatzen denetik 20 egun igaro aurretik, bukaera data. Filmatzen hasten bada jakinarazpenaren aurretik edo handik gutxira, hori guztia jakinarazi beharko da jakinarazpena egiten denetik 10 egun baliodunetik gorakoa izango ez den epe barruan.

23. artikulua. Laguntzaren ordainketa eta justifikazioa

23.1. Emakidaren ebazpena onartuta, lehen ordainketa bat egingo da, ehuneko 25ekoa.

